

txintxarri

Osasun publikoaz hausnartzen

Borobilean Elkarteak hirugarren mahai ingurua aurrera eraman du, 'Osakidetza kinka larrian?' izenburupean / 5

Semearen osasunaren alde

Yerai Rodriguez Martin herritar gaztearen amarekin hitz egin du TXINTXARRI aldizkariak / 8-9

Anne Ugarteburu
Cialcetaren kargu
uztearen berri eman
dute ohiko
udalbatzarrean / 2

Herriko ikastetxeetan
matrikulazio kanpaina
sustatzeko festa
egingo dute
hilaren 27an / 3

Palestinarren aurkako
genozidioa geratzeko
eskatzen jarraitzen
dute herritarrek,
kaleetan / 6

Ikastetxeetako haur
eta irakasleek pozez
eta alai astindu
dituzte danborrak
aurten ere / 7

Ostadar Boleibol
saileko Euskal Ligako
taldeek garaipena
lortu dute azken
jardunaldian / 10

Buruntzaldea IKTko
igerilariak ederki
jardun dira maila
ezberdinetako
hitzorduetan / 12

2022an jaiok

ERALDAKETA BATEN ALDE

La  **Salle**

Berrozpe
Andoain

ZATOZ GU EZAGUTZERA! BANAKAKO BISITAK

Informazio gehiago:
www.lasalleberrozpe.eus

**AURREMatrikulazio
DATAK**



OTSAILAK
7tik · 23ra



Kargu uzte bat izan du ohiko udalbatzarrak

EAJko zinegotzi Anne Ugarteburu Cialcetaren kargu uztearen berri eman du udalbatzak berriki egin duen ohiko udalbatzarrean. Horrez gain, beste bederatzai gai mahaigaineratu eta eztabaidatu dituzte

Txintzarri

2023ko 9. Zenbakiko kreditu aldatetaren (kreditu gehigarriak) eta Zataraingo A.3.1 lurzati zuzeneko esleipenaren berri ematearekin hasi du udal korporazioak hil honetako ohiko saioa. Horrekin batera, Hipodromo etorbideko 5., 7. eta 9. zenbakietan etxebizitzak, garajeen eta lokalen zuzenean besterentzeari buruzko alkatetza dekretuez ere informatu du.

Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) Lasarte-Oria 2019-2022", 2024ko abenduaren 31ra arte luzatzea onartzeaz aritu dira gai ordenako laugarren puntuan. Gaiak ez du inolako eztabaidarik sortu; zuzenean bozketa egin dute, eta, aho batez onartu. Bozka azalpenaren tartea baliatu du EAJko bozerramaile Jon Antxordokik alderdi guztiei proposamenaren alde egiteagatik.

Michelingo kiroldegi berria eraitzeko obren kontratuaren esleipen proposamena onartu ala ez eztabaidatu dute gero, eta, hori ere zuzenean bozkatu dute. Hau izan da emaitza: aldeko hamalau boz (PSE-EE; EH Bildu eta EAJ) eta bi abstentzio (ELOP eta PP). Emaitza hori kontuan hartuta, onartuta geratu da gaia.

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiarekin (TZN) hitzarmena onartzeaz mintzatu dira seigarren puntuan. Gaiak ez du inolako eztabaidarik sortu, eta zuzenean bozketa egin dute. Aldeko 11 bozekin (PSE-EE; EAJ; ELOP eta PP) eta aurkako bostekin (EH Bildu) aurrera egin du hitzarmenaren onartzeak.

Lasarte-Oriako Udalaren eta San Markos Mankomunitatearen arteko lankidetzak hitzarmenaren onarpena landu dute ostean, eta gaia aurkeztu baino lehen sortu da nahasmena; tarte batez ELOPeko kide Miguel Angel Tolosaren eta idazkariak eztabaidatu dute gaia udalbatzarrean eztabaida ote zitekeen, eta bien arteko desadostasunak desadostasun, gaia landu



Anne Ugarteburu Cialceta, arxiboko irudi batean, zinegotzi kargua hartu zuenean. TXINTXARRI

zitekeela ziurtatu du idazkariak. Aldeko hamabost bozka (PSE-EE; EAJ; EH Bildu eta PP) eta abstentzio batekin (ELOP) onartuta geratu da.

Saioko lehen mozioa

Gai ordenako zortzigarren puntuan Udal Gobernuak area tentsionatuak izendatuak izateko eskaera formala egin dezan galdegin du EH Bilduk mozio baten bitartez. Honako bi eskaera egin ditu: lehena, memoria justifikatiboa, zeinetan etxebizitza eskaintzaren eta prezioaren egoera eta bilakaera adieraziko den, datu objetiboen bidez, area tentsionatu gisa izendatuak izateko Eusko Jaurlaritzak jada zehaztutako eremuaren mugaketa egin batera. Bigarrena, berriz, ekintza plan espezifiko, zeinetan Eusko Jaurlaritzak jada zehaztutako eremu tentsionatuetan etxebizitzaren eskaintza eta eskaria orekatzeko neurri zehatzak zehaztuko diren, baita horiek gauzatzeko kronograma bat ere, hiru urtera begira. Mozioak ez du aurrera egin; EH Bilduk alde bozkatu arren, PSE-EE eta EAJk aurka bozkatu dute eta ELOP eta PP abstentitu egin dira. PSE-EEk eta EAJk aurkeztutako alternatiboa eztabaidatu dute gero, eta, onartu; PSE-EEk eta EAJk alde bozkatu

dute, eta EH Bildu, ELOP eta PP, berriz, abstentitu egin dira.

EAJko Anne Ugarteburu Cialcetak zinegotzi karguari uko egitearen berri eman du Agustin Valdivia alkateak gero. Ugarteburuk berak hitza hartu du, eta oposizio alderdi guztientzat esker hitzak izan ditu; horiek berarekin izandako "eskuzabaltasuna" jarri du balioan. Kultur etxeko lankideak ere gogoan izan ditu, horiengandik ere "asko ikasi" duela nabarmendu du. Hitzartzea amaitu aurretik, herritarrei ere zuzendu dizkie hitz batzuk: "Hein batean barkamena eskatu nahi diet, nigan konfiantza jarritz, EAJri bozka eman zieten herritarrei; agian, orain, dezepzioa senti dezakete nire dimisioarekin, baina esan nahi nieke hor izango nautela, beraiantzako". Amaitzeko, eskatu du legealdi hau "errespetuan eta elkarrekiko laguntzan" oinarritu dadila: "Posizio ezberdinetan egon arren, denok helburu bera dugu, are Lasarte-Oria hobetuzko edukitzea". Txalo zaparrada ederra jaso du, eta, atzera, zinegotzi izan den denboran egindako lana eskertu diote PSE-EEk, EH Bilduk eta PP alderdiek.

Galdera eta erreguen tartean ere zenbait gai mahaigaineratu zituzten. Udalaren YouTube kanalean ikus daiteke saioa osorik.



Udal ordezkari eta teknikariak, lehiaketa aurkezten. TXINTXARRI

Martxoak 8ko kartel lehiaketan parte hartzeko epea zabalik

Proposamenak aurkezteko epea otsailaren 1ean hasi eta 29an amaituko da; guztien artean hiru sarituko dituzte

Txintzarri

12 eta 17 urte bitarteko edonork parte hartu ahal du lehiaketan, eta pertsona bakoitzak nahi adina proposamen aurkeztu ahal du. Hori bai, kartel guztiek goiburua hau eraman behar dute, derrigorrez: *Martxoak 8 de Marzo, Emakumeen Nazioarteko Eguna, Día Internacional de las Mujeres*.

Afixa lantzeko teknika "erabat libre" da, eta formatu digitalean nahiz fisikoan aurkeztu ahal duzute, eta lan bakoitzak izenburu batekin identifikatu behar duzute.

Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroan jarriko dituzte ikusgai martxoaren 1etik 8ra, eta horiek bozkatzeko aukera izango dute herritarrek.

Kartel irabazlea epaimahai batek erabakiko du: Lasarte-Oriako Udaleko berdintasun teknikari, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta gaian adituek aukeratu dute, eta haren erabakia apelaezina izango da.

Hauek izango dira banatuko dituzten hiru sariak: irabazlearentzat 120 euro, bigarrenarentzat, 90 euro eta hirugarrenarentzat, 60 euro.



TXINTXARRI

Aurrena jaso, gero emateko

TrukeLandia festa giroan aurkeztu ostean, antolatzaileek jakinarazi dute otsailaren 2ra arte irekita dagoela izen ematea, ostiralarekin. Parte hartu nahiz dutenek GurasoLandia ekimeneko kide izan behar dute eta kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi, 695 78 53 89 telefonora deitu nahiz WhatsApp mezu bat bidali edota formulario bat bete.

Matrikulazio kanpaina sustatzeko festa

Ikastetxeetako matrikulazio epea otsailaren 7an hasiko dute aurten, eta 23ra arte iraungo du. Hori sustatu asmoz, festa bat aurrera eramango dute larunbat honetan, hilak 27, Okendo plazan. Herritarrak bertan parte hartzera deitu dituzte antolatzaileek

Txintxarri

Ikastetxeak datorren ikasturtera begira jarri dira dagoeneko. 2024-2025 ikasturteko matrikulazio kanpaina datorren hilaren hasieran martxan jarriko dute, eta hori iragarri eta sustatzeko asmoz, larunbat honetan, hilak 27, festa bat egingo dute. Hala jakinarazi dute Agustin Valdivia alkateak eta Hezkuntza batzordeburu Maite Iglesiasek, prentsaurrean. Ondoa izan dituzte baita ere, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Oiarza Pampliega eta Landa-berri ikastolako Consuelo Aizpurua zuzendariak.

Herriko familiei, gonbita

Eguraldi ona eginez gero, Okendo plazan aurrera eramango dute aipatu festa. Euria egingo balu, berriz, Oriarte Institutuko estalkira lekualdatuko dute, eta, oso-oso eguraldi txarra egingo balu, aldiz, Manuel Lekuona Kultur Etxean egingo dutela jakinarazi dute. Lasarte-Oriako familiak deitu dituzte larunbateko jardueran parte hartzera. Egitaraua ere iragarri dute; honako ekimenak aurrera eramango dituzte. 09:30ean izango da hasiera. Haurrek egingo dituzten marrazki eta idatziko dituzten esaldiak sare



Udal ordezkariak eta ikastetxeetako zuzendaritzetakoak ekimena aurkezten. TXINTXARRI

handi batean eskegiko dituzte, Okendo plazako arkupeetan. Eurentzako herriko ikastetxeetan matrikulatuak egoteak eta horietan ikasteak zer adierazten duen azaleratuko dute. Bi ordu geroago, *Zorionak Marimotots* ikuskizuna ikusteko aukera izango dute bertaratzen diren haurrek.

Horren ostean, ikastetxe ezberdinetako familiek parte hartuko dute; seme-alabak herriko ikastetxeetan matrikulatzearen esperientziak kontatuko dituzte. Hori amaituta, plazan bil-

dutakoek, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Agur bat lagun maite* dantzatuko dute, denek elkarrekin.

Ikastetxeetako zuzendaritzak

Ikastetxeetako zuzendaritzen txanda izango da 12:45ean; Lasarte-Oriako familiak animatuko dituzte euren haurrak herriko ikastetxeetan matrikulatzera.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dagoen egitasmoa da larunbatekoa.



NEURE KABUZ
MAITANE REBE

Futurofobia

Azkenaldian etorkizunean pentsatzen egon naiz, ea zer egin behar dugun hemendik urte batzuetara, ea zer egin behar dugun gainera datorkigunarekin. Eta ohartu naiz ez dugula etorkizunik izango. Eta une batean beldurra sentitzen ere hasi naiz. Eraikitzen ari garen mundua ez da perfektua. Gerra nuklearra, klima aldaketa, ekonomia atzerapena... eta epe luzera irtenbiderik agertzen ez duten beste mila mehatxu. Baina gaurkoan gazteen lan etorkizunaz eta egoera ekonomikoaz hitz egitera nator.

Azken hogeit urteetan kateatu diren hiru krisiek, 2008ko finantza krisiak, 2020ko Covid-19 krisiak eta 2022ko Ukrainako gerrak gure erosahalmena murriztu dute. 2008ko Estatu Batuetako burbuila inbiliararioaren ezta edo etxebizitzaren prezioen beherakada eta hipoteka merkatuaren krisia ekarri zuen, eta ekonomia askok beren hazkunde ekonomikoan kontrakzio bat jasan zuten. Horrez gain, langabeziaren igoerak eta aberastasunaren galerak kontsumoan negatiboki eragin zuten. Finantza erakunde askok arazo larriei aurre egiten zieten bitartean, beste batzuk porrota aitortu behar izan zuten. Horren ostean, 2019an eta 2020an COVID-19 pandemiak mundu mailako atzerapena ekarri zuen, mundu osoko jarduera ekonomikoan eragina izan zuena, baita langabeziaren igoera esanguratsu bat ere.

Krisi ekonomikoaren bitartean hazi ziren gazteak beren bizi proiektuak garatzeko zailtasun handiei aurre egin behar die. Gaur egun, lan merkatuan sartzeko, bertan duintasunez mantentzeko, etxebizitza eskuratzeko zein aurrezteko zailtasunen aurrean gazte asko asegabeak sentitzen dira. Gizarteak nola baztertzen dituen eta politikek babesten ez dituztela sentitzen dute. Honen arriskua gurasoen zein aitona-amonon laguntzari esker ahalik eta gutxienarekin bizirautera ohitzea da.

Eta zer egin behar dugu gazteok honen aurrean? Gazteen langabezia maila handiena duen Europako herrialdeetako batean bizi gara. Gaituta dauden gazte askok baldintza negargarriak dituzten lanpostuak dituzte, eta gainera, lan horiek onartzen ez dituztenean, alfertzat jotzen dituzte. Gainera, lana aurkitzeko zortea izan dutenen soldatak oso baxuak dira.

Gure gizarte zahartu honetan, aurrekontu erabakiak sistematikoki adinekoei laguntzera zuzentzen dira, agintariak sistematikoki gazteez ahazten diren bitartean. Gazteok ez dugu uste erretiroa hartzen dugunean pentsio bat jasoko dugunik, nahiz eta badakigun gurasoen eta aitona-amonon pentsioa ordaintzea dagokigula. Beraz, zergatik arduratu behar gara gure etorkizunaz izango ez dugula dakigunean?

TXANTXO JANTZIEN TAILERRA

Badatzoz Euskal Inauteriak! Txantxoz jantzeria animatu nahi zaituztegu. Jantzia ez duzuenontzat, heldu zein umeei zuzendutako **TAILERRA** antolatzen dugu.

• Noiz: Urtarrilaren 31n, 18:00etan.
• Non: Anbulategiko eraikineko 2.pisua.

Eraman beharrekoa:
Lastozko txanoa eta etxean dituzuen oihal zaharrak.

Informazioa eta izen-ematea:
Ttakuneko bulegoan | kultura@ttakun.eus |
943-37 14 48 zenbakian | whatsapp: 695785389

MAITE

ESTETIKA ARETOA

Negua da fotodepilazioa egiteko unerik egokiena

Zatoz gure estetika aretora!

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943-37 08 45

Manikura eta pedikura - Aurpegiko tratamenduak - Mota ezberdinetako depilazioak - Solariuma

Erriberako lanak udarako amaitzea espero dute

Campezo Obras y Servicios SA eta Jaizubia Obras y Servicios SA enpresak aurrera eramaten ari dira Erribera kaleko etxabeak berritzeko lanak, 3.580.133,18 euroren truke. Besteak beste, Oria eta kiroldegi berria lotuko dituen bidegorri bat egingo dute

Txintzarri

Herrian aurrera eramaten ari den obra esanguratsuenak era-kusten jarraitzen du Lasarte-Oriako Udalak. Atsotarreko kirol eremuarenaz gain, Erribera kalea goitik behera berritzen ari da duela hilabete batzuetatik. Moldaketa garrantzitsuenetako bat Oria auzoa etorkizuneko kiroldegi berriarekin (gaur egun Michelin kirol gunea dagoen eremua) lotuko duen zubia jar-tearena da, eta azpiegitura hori instalatu duten eguna aukeratu dute bisita gidatu bat egiteko. Agustin Valdivia alkatea, udal arkitektoa eta lanak burutzen ari diren Campezo nahiz Jaizubia enpresetako ordezkariak erakutsi diete egiten ari direna kazetariari. Auzotarrek "luzaroan" itxaron dutela adierazi du Valdiviak eta haien egonaldia ez dela asko luzatuko; ondo bidean, uztaileko bukatzea aurreikusi du. Rosalesek gehitu du lanak "erritmo onean" doazela. "Tren



Zumaburu parkea eta Erribera kalea lotuko ditu zubi honek. TXINTXARRI

batekin alderatzen dut proiektu hau: bagoiez bagoi ari gara erakitzen".

Aipatu zubiarenaz gain beste lan esanguratsu ugari egiten ari dira: oinezkoentzako pasabideak irisgarriago egiten (iga-

robide horiek luzatu egin dituzte horren aldapatsuak ez izateko) eta lurra inpermeabilizaten, likidoak isur ez daitezten; ibaiertzeko paseoko bidegorria osatzeko zatia egiten; eta zorua zabaltzen, miradore



Ezkerrean, oinezkoentzako pasabideetako bat, eta, eskuinean, bidegorria. TXINTXARRI



Obren arduradunak eta alkatea, miradorean, Oria ibaira begira. TXINTXARRI

bat jarri eta herritarrek Oria ibaia eta inguruak ikus ditzaten bertatik. Horiez gain aldaketa gehiago egingo dituzte, hala nola, eremu horretako argiteria berritzea, LED teknologia erabilita.

Uztaileko bukatuta egotea aurreikusi duten obra horiek, esan bezala, Campezo Obras y Servicios SA eta Jaizubia Obras y Servicios SA enpresak aurrera eramaten ari dira, 3.580.133,18 euroren truke (BEZa barne).

Lasarte-Oria euskalduntzen jarraituko dute, elkarrekin

Lankidetzaz hitzarmenak sinatu ditu udalak hiru ikastetxeetako guraso elkarte eta Ttakun KEREkin

Txintzarri

Udalaren izenean Agustin Valdivia alkatea eta Euskara batzordeko lehendakari Jon Antxordoki izan dira sinatze ekitaldian. Hitzarmenaren garrantzia nabarmendu dute biek, bai jasotzen dituzten programen eta dirulaguntzen kopuruagatik, bai hitzartutakoaren bidez eragile guztiak "saretuta eta adostasunean" ari-izeak esan nahi duenagatik.

Hitzarmen handiena Ttakun Kultur Elkarteko lehendakaria den Mari Karmen Ormazabalekin sinatu du udalak. 184.365

euroko laguntza jasoko du eragile horrek programa hauek aurrera eramateagatik: Gazte eta Amaraun klubak, Kuadrillategi, GurasoLeku, Solaskide, Kulturgintza euskararen eskutik, Euskaraldia eta TXINTXARRI aldizkaria. Ekimen horien antolaketa prestatzeaz gain jasoleei informazioa emango die eta behar diren langileak nahiz diru kontuak kudeatuko ditu, besteak beste.

Bestalde, herriko ikastetxeetako hiru guraso elkarteekin (Sasoeta-Zumaburuko Burunzpe,



Hitzarmenak sinatu dituzten eragileetako nahiz udaleko ordezkariak. TXINTXARRI

Oriarteko Oriartekide eta Landaberrin, Arantzako aterpean egonaldia Sasoetan edota Noka ikastaroa Oriarten) nahiz udalarekin elkarlanean egindako programak (GurasoLeku, Gu ere bertsotan, Elemeleka...) burutzeko.

tak Landaberrin, Arantzako aterpean egonaldia Sasoetan edota Noka ikastaroa Oriarten) nahiz udalarekin elkarlanean egindako programak (GurasoLeku, Gu ere bertsotan, Elemeleka...) burutzeko.

Liburu Baby Klubaren ekainera arteko saioak zehaztu dituzte

Bihar (hilak 27) aurrera eramango dute Liburu Baby Kluba izeneko irakurketa taldeko laugarren saioa, Udal Liburutegian, 11:00etatik aurrera. Ekimen hori haurren artean irakurzaletasuna sustatzeko Bookstart Euskadi egitasmoaren barrukoa da; 0 eta 2 urteko umeek eta euren familiek parte har dezakete, doan.

Ekainera arteko saioak zehaztu ditu udalak. Hauek izango dira hurrengoak: otsailaren 10ekoa eta 24koa; martxoaren 9koa eta 23koa; apirilaren 13koa eta 27koa; maiatzaren 11koa eta 25ekoa; eta ekainaren 8koa eta 22koa. Horiek guztiak ere Udal Liburutegian izango dira.



Ikus-entzuleen parean eserita daude, ezker-eskuin, Ina Idarreta, Kontxi Rebollo, Ixiar Arteaga, Rebeka Ubera eta Olatz Mercader. TXINTXARRI

Osakidetzaren diagnosia: ez dago osasuntsu

Osasun sistema publikoari buruz hausnartu dute dozenaka herritarrek lau gonbidaturekin batera, Borobilean Elkartek aurrera eramandako hirugarren mahai inguruan, 'Osakidetzaren kinka larrian?' izenburupean. Lepo bete dute Oriarte Landaberri institutuko musika gela

Iñigo Gonzalez Sarobe

Borobilean Elkartek hilaren 24an aurrera eramandako *Osakidetzaren kinka larrian?* mahai inguruaren izenburuari azken batean kendu zioten galdera ikurra lau gonbidatuek, bakoitzak bere alor eta ikuspuntutik argi adierazi baitzuten ataka estuan dagoela osasun sistema publikoa. Hauek izan ziren Oriar-

te Landaberri institutuko musika gela goraino bete zuten herritarren aurrean jardun zirenak: Onkologikoa Ospitaleko Paziente eta Erabiltzaileen Batzordeko nahiz Izan Inurri elkarteko kide Olatz Mercader, lehen arretan aritutako sendagile erretiratu Ina Idarreta, Gasteizko legebiltzarkide (EH Bildu) Rebeka Ubera eta DOPA

Donostialdea Osasun Publikoaren Alde plataformako kide Kontxi Rebollo.

Mahai ingurua antolatu zuen eragileko kide Ixiar Arteagak moderatu zuen solasaldia, eta, gaiari heldu aurretik, berriki hildako taldekide Aitziber Ugartemendia izan zuen gogoan. "Berak proposatu zuen egitasmo honi Borobilean izena jartzea".

Ondoren, ekimenaren ardatza zein den gogoratu zuen, hau da, hilean hileko gaiari buruz begietara begira eta elkarrekin gogoeta egitea, norberak bere iritzia libreki eta errespetuz emanda. Hilabete honetako hausnarketagaia osasun sistema publikoa izan da, eta, zehazki, Osakidetzaren.

"Kaos izugarria dago"

Olatz Mercaderri bularreko minbizia diagnostikatu zioten 2020an eta orduan bilakatu zen Onkologikoko paziente. Orduetik bizitakoa partekatu zuen parean zituenekin: "Minbizia izatea ginkana bat da, proba guztiak ez dituztelako Onkologikoan bertan egiten. Gainera, mediku ona izanda ere estrukturalak dira kontsultara sartzeko atzerapenak, bizpahiru ordukoak. Kimioterapia jasotzekoak, berriz, hiruzpalau ordukoak gutxienez". Zerbitzua gero eta okerragoa izateak arduratuta, paziente eta erabiltzaileen batzordea eratu zuten, euren aldarriak lau haizetara zabaltzeko. "Kaos izugarria dago eta pazienteak kinka larrian gaude, baita profesionalak ere: konprometituta daude, baina erreta".

Onkologikoan ez, Lehen Arreta zerbitzuan 32 urtez lan egin du Ina Idarreta sendagile hernaniarrak. Beharrez hasi zenean, 80. hamarkadan, "dena" zuten egiteke, eta "ilusioz" heldu zioten erronkari, perfektua izan ez arren arreta zerbitzu duin bat lortu arte. Hori loratzen ikusi zuen moduan, ordea, useltze prozesua ere gertutik bizi izan du: "Kordinazio falta izugarria dago, burokrasia gehiegi, goi kargudunak mediokreak dira, pazienteak bezero bilakatu dira... eta arduradunei ez zaie

batare inporta hori guztia". Sistemaren "sintomak" zeintzuk diren aletu eta gero, honako galdera hau bota zuen: "Utzikeria izan da ala pribatizazioaren mesedetan aurrera eramandako estrategia bat?".

Uberak argi du aurrez diseinatutako estrategia bat izan dela, azken urteetan Eusko Jaur-larritza kudeatu duten EAJ eta PSE-EE alderdiek aurrera eramandako politika "zementuarena" izan delako, ez pertsonena. Hau da, langile eta baliabide gehiago behar zituzten ospitale edota osasun zentroak indartu baino, beharrezkoak ez ziren eraikin ugari eraiki dituztelako. "Osakidetzari gizatasuna kendu diote: planifikazioa txarra da, eta, antolaketa zaharkitua".

"Entzun dugun guztia entzunda, nork jartzen du zalantzan herritarren plataformak beharrezkoak direla egoerari aurre egiteko?", bota zuen Rebollok. DOPAREN sortzaileetako bat da bera, eta, jardunean daramatzan urteetan "asko egin eta ikasi" duela esan zuen, "osasun publiko duin eta euskaldun" baten aldeko borrokan. Erroka hori "zaila baina polita" dela nabarmendu eta lasarteoriatarrek horrelako eragile bat eratzera animatu zituen. Bestalde, aurreratutako Euskal Herri oso taldeak hiru manifestazio prestatzen ari direla martxoaren 16rako; Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiruburuetan egingo dituzte.

**OLATZ MERCADER:
"KAOS IZUGARRIA
DAGO ETA PAZIENTEAK
KINKA LARRIAN
GAUDE"**

EPA LASARTE HHI

MATRIKULA ZABALIK urtarrilaren 29tik otsailaren 2ra

- **Lehen Hezkuntza:** Alfabetizazioa, Historia, Osasuna eta elikadura, Ingelesa eta Espainiera.
- **Bigarren Hezkuntza (DBHko titulua lortzeko moduluak).**
- Euskara tailerra.
- Gela digitalak: hiritartasun digitalerako tailerrak



Aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu!



Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Dinamikaren manifestazioan 150 bat herritarrek parte hartu zuten. TXINTXARRI

Genozidioa gelditzeko eskatu dute beste behin

Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Dinamikak deituta, 150 bat lasarteoriarrek parte hartu dute herriko kaleetan barrena egindako manifestazioan. Israelek Gazan aurrera daraman eraso salatu eta Europak horri ematen dion babesa gaitzetsi dute

Maitane Aldanondo

Okendo plazatik abiatu zuten hilaren 21eko ekintza. Hamarnaka herritar jarri ziren *Israel genozida*, *Palestina askatu* zioen pankarta atzean, leku berean amaituko zen bideari ekiteko. San Pedro eliza parean Palestinako bandera bat zeramaten hiru haur batu zitzaizkien eta mobilizazioaren une batean taldearen buruan jartzera gonbidatu zituzten. Hala iritsi ziren Tajamar biribilgunera. Han, gorpua irudikatzen zituzten margo gorri zikindutako zaku zuriak jarri zituzten, eta bengala berde eta gorri bana piztu maskara zuridun bi lagunek; beste bik *Israel genozida* zioen pankarta eutsi zuten, eta bi haurrek, Palestinako bandera.

Ibilbidea amaitu eta Okendo-ira iristean idatzi bat irakurri zuten, lehenengo, euskaraz, eta ondoren, gaztelaniaz. Eraso hasi zenetik ehun egun baino gehiago pasatu diren honetan Gazan bizi duten egoeraren des-

kribapena egin zuten. Zaurituak artatzeko beharrezko baliabideen gabezia, gosez eta egarritz hildako jendea, gaixotasunen hedatzea, bombardaketen ondorioz eraitzitate ospitale, unibertitate eta eskolak...

25.000 hildako Gazan

Horren guztiaren ondorioak honakoak dira: "Gazan 25.000 pertsona hil dituzte jada. Zaurituak 61.000 dira. 7.000 desagertu daude oraindik hondakinen azpian. 800.000 pertsona muturreko gosea pasatzen. 400.000 gaixotasun infekziosoekin. 119 kazetari erailda. Zisjordanian 350 hildako, 4.000 zauritu, 5.000 preso, 6.000 atxilotu". Halaber, Israelgo espetxeetan dauden

"GAZAN 25.000 PERTSONA HIL DITUZTE JADA; ZAURITUAK, ALDIZ, 61.000 DIRA"

presoen egoera ere gogoratu zuten: "inkomunikatuta, baldintza miserabletan, hamarnaka pilatuta ziegetan, lurrean lotan, etengabeko jipoiak jasaten, etengabeko tortura, erailketak".

Salatu zuten erasoaren irudiak "harro erakusten" dituztela sionistek sare sozialen bidez eta, Mendebaldeko masa komunikabideen laguntzaz, "errealitatea nahieran manipulatu eta gezurrak etengabe zabaltzen" dituztela. Hori guztia AEBen eta Europaren "babes inkondizionala" dutelako egin dezake Israelek: politikoa, mediatikoa, ekonomikoa eta militarra. Horren erakusgarri da Hegoafrikako Nazioarteko Justizia Auzitegian Israeli "genozidioa kalkulatu" egiten ari dela leporatu izana, Alemaniak genozidiorik ez dela dioen bitartean.

Era berean, Israelek Euskal Herrian ere babesa baduela nabarmendu zuten. Eusko Jaur-laritzak zuzeneko inbertsioak ditu CAF enpresaren bidez eta



Tajamar biribilgunean egindako ekintza ikusgarria. TXINTXARRI



Lasarte-Oria Palestinarekin Herri Dinamikako bi kide, azalpenak ematen. TXINTXARRI

joan den astean Gipuzkoako Foru Aldundiak CAFeko zuzendaria, "justu momentu honetan", saritu izana gaitzetsi dute. Herrian, berriz, taldeak jarritako mozioa ezeztatu eta eztabaidatzeari uko egin zion bozeramaileen batzarrak. "Zentsura, isiltasuna, konplizitatea. Demokraziaren alde eta biolentziaren kontra ahoak betetzen dituzten horiek, horrelako genozidio baten aurrean isilik geratzea eta eztabaidak zentsuratzea erabakitzen dute".

Gatazkaren oinarrian mendebaldeko potentzien kolonizazioa dagoela gogoratu zuten, "Europak bultzatutako proiektu sionistaren kolonizazio bat". Errepresioak errepresio eta komunikabideen arretea gutxitu bada ere, elkartasuna handitu egin dela adierazi zuten eta Palesti-

PSE-EE, EAJ ETA PP-K UDALBATZARREAN EZTAIBADATZEKO MOZIO BATEN AURKA BOZKATU DUTE

naren kolonizazioa eraikitzen duten estatu, enpresa eta produktuen kontra borrokatzera deitu zituzten bertaratutakoak.

Azken horri lotuta, Israel babesten duten enpresen izenak eta sionisten alde egiten dutena jasotzen zuten orriak banatu zituzten plazan bildutakoei eta inguruko tabernen terrazetan zeuden herritarrei.

Ukatutako mozioa

Lasarte-Oria Palestinarekin elkarteak mozio bat aurkeztu zuen hilaren 8an, urtarrileko udalbatzarrean –hilaren 18an aurrera eraman zuten– eztabaida zezaten. Bertan jaso zuten Gazak egun bizi duen egoeraren azalpena eta bi eskaera zehatz: Udaletxean *SOS Palestina* lelodun afixa eta Palestinako bandera bana jartzea. Hilaren 16an, ordea, bozeramaileen batzarrak adostu zuen mozioa kanpo uztea, PSE-EE, EAJ eta PPren botoekin.

Elkarteko kideen hitzetan, mendebaldeko herrialdeen "elkertasun falta eta zinismoak bere isla du Lasarte-Orian ere".

Pozez eta alai, aurten ere

Danborrak jo dituzte herriko ikastetxeetan

Herriko ikastetxeetako haurrek pozez eta alai astindu zituzten danborrak San Sebastian bezperan, eguraldi eguzkitsu baina hotzak lagunduta. Kapela buruan eta sukaldariz jantzita, hotzari aurre egin zioten umore onez. Ez ziren falta izan *Donostiako Martxa*, *Iriyarena*, *Retreta*, *Polka* edota Lasarte-Oriaren nahiz Realaren ereserkiak. Guraso eta senide ugari bertaratu ziren txikiak ikustera eta oroigarri gisa bideo edo argazkiak egitera.

Danborradek ireki dute herriko ikastetxeetako ikasle eta irakasleek urtean zehar aurrera eramaten dituzten ospakizunen sorta. Laster jarraituko dute Santa Agenda bezperarekin edota inauteriekin.



Landaberi LHko ikasle eta irakasleak, ohi bezala, anfiteatroan aritu ziren. TXINTXARRI



Garaikoetxeako txikiak dotore irten ziren patio estalira. TXINTXARRI



Sasoeta-Zumaburuko ikasle guztiak ere kanpoan jotzera animatu ziren. TXINTXARRI



Adi jarraitu zituzten danbor jotzaileek zuzendarien jarraibideak. TXINTXARRI

Egin TXOTX herrian!

OTEGI

TOLARE SAGARDOTEGIA

Larunbatean
irekiko dugu!
(urtarrilaren 27an)

txahal-saiheskia ere badugu!

Igande gauak, astelehenak eta astearteak itxita.
Astean zehar erreserbarekin (talde handiak).

ERRESERBAK: 943-36 50 29 / 654 80 61 63 • Solla-Enea Baserria, Zabaleta auzoa 20160 LASARTE-ORIA

Maddi Zaldua

Hesteetako gaixotasun batekin jaio zen Yeray Rodriguez Martin herritarra duela hamalau urte. Ordutik hona, 11 ebakuntza tarteko, maiz bisitatu behar izaten ditu ospitaleak; Donostiakoak eta Madrilgoak. Bidea ez dela erraza izaten ari aitor-tu du bere ama Patricia Martinek, baina, zailtasunak zailtasun eta nekeak neke, aurrera egiteko kemena badutela erakutsi du elkarrizketa hau osatzeko TXINTXARRI-rekin izandako solasaldian. Elkar-tasun keinuak ere jaso dituzte, eta, azaldu du horiek "motibazio handia" eragin diela bidean aurrera jarraitzeko.

Zein patologia du Yerayk?

Yerayk bi patologia ezberdin ditu oraintxe bertan. Horieta-ko bat, jaio zenean jakin genuen, hesteak kanpoan zituela jaio baitzen. Momentu hartan, nire iritziz, ez zuten behar bezala jokatu, eta hala uste genuela-ko salaketa jarri genuen, galdu egin genuen arren; zaila da Osakidetzari irabaztea.

Zergatik uste izan zenuen hori? Zer gertatu zen?

Hestea sabel barrura sartzeko ebakuntza egin zioten, eta 40 egunez eduki zuten Yeray jan gabe. Horren ondorioz, nekrosatu egin zitzaion hestea [heste ehuna hil egin zitzaion], eta berriz ere ebakuntza egitea erabaki zutenean, hesterik gabe utzi, helikopteroan sartu, eta Madrilera eramane zuten.

Bizirauteko ahaleaginean etengabeko borroka bat izaten ari da semearena, jaio zenetik. **Madrilen jarraitu zenuten prozesua, beraz.**

Bai, urtebete egin genuen hango ospitale batean. Semea eta biok erietzeko gela batean igarotzen genuen eguna, eta aita, erietxean ez zegoenean, alokairuan hartutako etxe batean.

Denbora hori pasata, etxera itzuli ginen, baina gaur egun, oraindik ere, hiru hilean behin berrikuste azterketetara joaten gara Madrilera.

"BEGI BISTAKOA DA HAZKUNDE HORMONAREN TRATAMENDUA ON EGITEN ARI ZAIOLA"



Patricia Martin eta David Rodriguez, Yeray semea erdian dutela. PATRICIA MARTIN

"Semearengatik edozer egingo genuela garbi izan dugu beti"

PATRICIA MARTIN DURAN YERAY RODRIGUEZ MARTINEN AMA

Hesteetako patologia batekin jaio zen Yeray Rodriguez Martin lasarteoriatarra. 14 urte ditu, eta denbora horretan gaixotasunaren ondorioz bitzakoak kontatu ditu bere ama Patricia

Eta Madrilgo ospitalera egindako bisita batean, Yerayren garaieraz ere hitz egin zizueten.

Bai, horrekin lotuta dago semeak duen bigarren patologia. Adina kontuan hartuta, behar baino baxuagoa zela aipatu ziguten. Pentsa, 14 urte ditu egun, eta 1 metro eta 27 zentimetro neurtzen ditu.

Hazkunde hormonaren berri eman ziguten, baina beraiek ezin ziguten tratamendu hori eskaini; gure komunitatean eskatu behar genuela esan zi-

guten. Gauzak horrela, hemen eskaera egin genuen, baina atzera bota ziguten.

Zergatik ukatu zizueten?

Hasteko, eskaera bera egiteko oztopoak jarri zizkiguten. Esan ziguten tratamendu hori martxan jarri aurretik, endokrinoak urtebeteko jarraipena egin behar ziola semeari. Azaldu genien Madrilan egiten ari zitzaiela, baina horrek ez zien balio izan. Beraz, urtebete hori igaro, eta orduan egin zizkieten hazkunde hormonaren probak.

Tarte horretan esaten ziguten Yeray ez haztea normala zela, hesteetan zuen gaixotasunaren eragina zela, baina guk azaltzen genien, bazeudela bere patologia bera zuten haurrak, hazteko arazorik ez zutenak. Bage-nkien hesteetako gaixotasunak ondorioak izan zitzakeela hazkuntza prozesuan, baina arrazoi horregatik edo beste baten-gatik gertatzen zen jakin nahi genuelako eskatu genuen hazkunde hormonaren proba egin ziezaioten.

Lehenengo proba iritsi, eta hazkuntza hormonaren parame-troak gutxiengo mailatik behera eman zuten. Horren ostean etorri zen bigarren bat, eta horretan ere emaitza bera jaso genuen. Emaitza horien aurrean, endokrinoak hormona hazkundearen tratamenduaren eskaera egin zion komiteari [zenbait espezia-litateko mediku taldea], baina uko egin zion.

Zein arrazoi eman zituzten horri ezezkoa emateko?

Argudiatu zuten Yerayk hezurren hazkuntza atzeratua duela, eta baduela hazteko denbora. Erantzun horren aurrean, azaldu nion endokrinoari, hormona maila baxua izanda, nahi adina denbora eman ziezaioketela hazteko, baina hori ez zela gertatuko.

Sei hilabete igarota, eta zentimetro bakar bat ere hazi ez zela ikusirik, endokrinoak bigarren saiaketa bat egingo zuela esan zigun.

Eta zein izan zen orduan jaso zenu-ten erantzuna?

Esan ziguten lehen eskaeratik bigarrenera ez zela egoera aldatu, eta behin-behinean uko egiten ziotela tratamendu hori martxan jartzeari. Etengabeko ate ixte bat izaten ari da.

Ezezko horiek jasota, familia gisa zein erabaki hartu zenuten?

Errekurtsoak jarri dizkiegu ezezko erantzun horiei; ez dut aipatu gabe utzi nahi Inigo Jaka mediku eta abokatu ohia ematen ari zai-gun babes eta laguntza guztia. Bi eskaera egin zituen endokrinoak, guk errekurto jarri genion lehen ezezkoari. Gero, bigarren bat egin dugu, eta, egunotan jaso dugu erantzuna. Ukatu egin dute, beraz, bide administratiboa amaitu da; orain, Gizarte gaietarako epaitegian jarrai dezake gaiak. Bide hori jorra dezakegun eta nola azterketzen ari gara.

Hazkunde hormonaren eskaerei emandako ezezkoen aurrean, tratamendu hori martxan jarri eta zuen gain hartzea erabaki duzue.

Bai, hala da. Madrilgo ospitalean esan ziguten hazkunde hormo-naren tratamendua martxan jartzekotan, berehala egin behar

"JASO DUGUN ELKARTASUNA BALIAGARRIA IZAN DA BORROKAREKIN AURRERA EGITEKO"

genuela, izan ere, hori hartu ahal izateko, ordura arteko hesteetako tratamendua eten behar baitzioten ez zekitelako ziur biak uztargarri ote diren ala ez.

Beraz, Osakidetzatik jasotako ezezkoen aurrean, tratamendua gure gain hartzeko erabakia hartu dugu, osasun etxe pribatu baten bitartez ari gara hori aurrera eramaten.

Eman al du emaitzarik tratamendu horrek?

Noski eman duela. Pentsa, iazko urtarriletik abuztura Yeray ez zen zentimetro bakar bat ere hazi, eta, orain, lau hilabetetan lau zentimetro hazi da. Nire gorpuztaren alderatzen dut askotan semearena, eta, antzematen dut hazten ari dela. Begi bistakoa da tratamendu hori behar duela, on egiten ari zaiola. Zer gehiago behar du Osakidetzako medikuntza komiteak tratamendua eurek bideratzeko? Emaitza horien berri ere eman genien azken errekurtsioan, baina...

Horretaz gain, ez dakit kasualitatea izango den ala ez, baina hazkunde hormonaren tratamenduarekin hasi denetik ospitale-ratze gutxiago izan ditu Yerayk. Ez dakit nolabaiteko harremana egon daitekeen, edo kasualitate hutsa den, baina dezente hobeto dago.

Arazoa da garestia dela.

Bai. Gure semearen osasunaren alde edozer egingo genuela garbi izan dugu beti, nahiz eta gure egoera ez den erraza. Gurasook bananduta gaude, eta bakoitza etxe batean bizi gara; ni alokairuko etxe batean bizi naiz hemen, Lasarte-Orian.

Hazkunde hormonaren tratamenduak, momentu honetan, 500 euro balio ditu, hilean; pentsa, hileroko diru kopuru hori tratamendura bideratu behar dugula



Yerai Rodriguez eta Porrotx San Silvestreko kanpaikadak aurrera eramaten. TXINTXARRI

esan nahi du horrek. Agian, baten bati ez zaio hainbesterako denik irudituko, baina, guretzat oso garestia da. Gainera dosiaren arabera hazten da prezioa, eta, aurreikusten dugu denbora gutxian dosia handituko diotela, eta hileroko gastua 1.000 eurotako izan daitekeela.

Aldarrikatzen duzue Osakidetzak bere gain hartzea Yerayk behar duen tratamendu hori.

Bai, hori da. Hazkunde hormonaren tratamendua hartzeko eten dioten besteak hilean 17.000 euro balio ditu, hortaz, hori etenda egonik, ezin dute hazkunde hormonarena euren gain hartu? Dirua bada arrazoia, etenda dagoen tratamenduaren dirutza hori guztia aurrezten ari dira... **Eta gaia herrira ekarrita, jo duzue bertako aterik?**

Bai, Inñigok [Jaka, laguntzen ari zaien mediku eta abokatu ohia] lagunduta joan nintzen alkatearengana. Oso jator agertu zen,

laguntza emateko erabateko presuntasunarekin. Gizarte Zerbitzuetara bideratu zuen gaia, eta bertara iritsi nintzenean etorri zen arazoa. Artatu gintuen gizarte langileak esan zidan bananduta nengoenez, laguntza niri, ama gisa emango zidaten laguntza zatia baino ezingo zidatela eman. Erabat sumindu ninduen horrek, uste baitut laguntza hori eman edo ez, ezin dezakeela baldintzatu ni bananduta egoteak. Nire semearentzako da laguntza, eta, bera herritarra izanik, iruditzen zait hori baino ez dutela kontuan hartu behar.

Aitortu behar dut momentu zail batean harrapatu ninduela hitzordu hark, ez nengoen nire unerik onenean, eta erantzuna zen izan zen ikusita, etsita alde egin nuen bertatik. Erabaki dut bide hori ez dudala berriz ere hartuko, uste baitut ez duela merezi; on baino kalte gehiago egingen dit.

Elkartasunarenak, ordea, zabaldu dira. Keinu bat baino gehiago jaso dituzue herrian, eta baita bertatik kanpo ere.

Bai, oso-oso eskertuta gaude guztiekin. Nire Andoaingo betiko lagunekin gaiaz hizketan aritu ginen batean, Yerayri laguntzeko prest agertu ziren. Horrela, abenduaren 16an bigarren eskuko azoka bat eta beste zenbait jarduera antolatu zituzten, eta ia 8.000 euro biltzea lortu zuten. Horri San Silvestreren pintxo pote solidariokoa gehituta, 9.000 euro eta piku batu dira. Izugarria izan da. Pentsa, guk kalkulatu genuen urtebeteko tratamenduak 7.000 bat euro inguruko kostua izango zuela; bada, begira, diru horrekin beste urtebetez, behintzat, eutsi ahal izango diogu.

Jasotako laguntza horrek, gainera, ahalbidetuko dit epaitegi-tara joanez gero gastu horiei aurre egin ahal izatea. Izan ere, hori jaso izan ez bagenu, ezingo

genituen gastu guztiak geure gain hartu.

Gimnasioko erabiltzaile talde batek ere [herriko gimnasio batean egiten du lan Patriciak], bat-batean, 500 euroko diru sarrera bat egin zidan, eta badago, baita ere hileroko bere ekarpen ekonomikoa egiten digunik ere.

Malkoei ezin eutsi egon naiz une askotan; arima eta bihotza bete didate keinu horiek guztiek; Lasarte-Oriakoek eta Andoaingoek.

Motibazio handia izan da guretzat egin duten hori guztia. Nekatuta geunden, baina jasotzen ari garen elkartasun guztia erabakigarria izan da borrokarekin aurrera egiteko.

Gaineratu nahi dut, guk zorte handia izan dugula gaur arte egin dugun bide hau egin ahal izan dugulako, baina, ziur naiz aukerarik gabe bidean geratu diren kasuak izango direla. Guztiek aukera izan behar dutela uste dut, eta hori ahalbidetuko duen pazientearen defendatzailea bat existitu dadin nahiko nuke eta horren alde borrokatuko naiz. Herritarrok ez dakigu zer egin eta zer egin ezin dezakegun; bidea zaila izan arren, badaude egin daitezkeen gauzak, baina horren berri inork ematen ez badizu...

Elkarrizketa hau irakurri eta nola edo hala laguntza emateko prest dagoen inor bada, zer eta nola egin dezake?

Horiei esango nieke nirekin harremanetan jartzeko. Laguntza eskatzea, niretzat, behintzat, ez da erraza, baina etor daitekeen guztia izango da ongietorria, eta eskertuta egongo gara, noski.

Elkarrizketa osoa
www.txintxarri.eus-en

Etxeko sabairako argi berriak!

Lanpara zirkularrak | Intentsitate eta kolore erregulagarriak | Distira handiko LEDak

ILARGI MODELOA



MUNDUA MODELOA



ZURI-BELTZEKO MODELOAK



600 85 75 86

www.electricidadarregui.com

Material elektrikoa • Argiak • Etxetresna elektrikoak • TB/HI-FI • Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

Euskal Ligako taldeek, puntuak poltsikoan

Euskal Ligako hitzordua izan dute Ostadar SKTko kideek. Maialen Chourraut kiroldegian zein Galdakaon ederki jardun dira klub urdin-beltzeko taldeak eta garaipeneko puntuak eskuratu dituzte. 2. mailako ekipoak bigarren itzulia hasi du eta saikapeneko bigarren postuan da

Txintxarri

Ostadar Boleibol saileko Euskal Ligako taldeek jardunaldi oparoa izan zuten; garaipena erdietsi zuten euren hitzorduetan.

2. mailako taldeak Kora Green City Mendebaldearen aurka neur-tu zituen indarrak Maialen Chourraut kiroldegian. Lasarte-Oriako ekipoa nagusi izan zen ligako bigarren itzuliko lehen neurketan, 3-0 (25-12, 15-9 eta 25-14). Asier Acuriola Ostadarreko entrena-tzaileak azaldu duenez, bi taldeen arteko maila jauzia handia da:

"Mendebaldeak aurten lehen urtea du Euskal Ligan eta oraindik mailara moldatu ez dela nabari da".

A dibide modura, gasteiztarrek sakeetan izandako arazoa aipatu du: "Asko kosta zitzaizen gure sakeak ongi defendatzea eta horiek guretzako puntu zuzenak izan ziren edo kontraeraso erosoak".

Hirugarren postua

Ongi hasi du urtea eta bigarren itzulia Ostadarreko Euskal Ligako II. mailako taldeak. Hil



2. mailako Euskal Ligako neurketako irudia. TXINTXARRI

honetan bi neurketa jokatu eta biak irabazi dituzte Asier Acuriolak zuzentzen dituen jokalariek. "Ez dira urteko neurketarik gogorrenak izan", adierazi du pres-tatzaileak.

Urdin-beltzen entrenatzailearen ustetan, Gabonetako etenaldiaren ostean erritmo pixka bat falta du taldeak, baina euren helburua lortzeko bide onean doazela ere onartu du: "Denboraldian zehar hamarretik zazpi garaipen lortu ditugu eta aurreko bi urteetako alderaketa eginez, ekipoa asko hazi da bai esperientzian baita kalitatean ere".

Horri esker saikapeneko hirugarren postuan da talde urdin-beltza eta hori mantentzea du xede. Horretarako hilaren 28an Nafarroako Unibertsitatearen aurka neurketa garrantzitsua dela nabarmendu du Acuriolak. Ostadarreko jokalariek euren onena emango dute pausoz pauso helburua lortzeko.

Euskal Ligako taldeak, aldiz, gehiago izerditu behar izan zuen

Galdakaoren aurkako neurketa irabazteko.

Bi taldeek ongi baliatu zuten euren sarea setetan abantaila izan eta bereganatzeko. Nahiz eta talde urdin-beltzak borrokatu eta bizkaitarrei ederki aurre egin, laugarren setan batez ere, ezin izan zioten sarea apurtu. Beraz, binako berdinketaren ostean (17-25, 25-23, 17-25 eta 26-24) bosgarren setean erabaki zen partidako garailea. Ostadarrek ongi erantzun zion egoerari eta 12-15 gailendu zen.

Gainerako emaitzak

Gipuzkoako mailan, aldiz, txanponaren bi aldeak bizi izan zituzten Ostadarreko taldeek.

Infantilek 3-0eko emaitzak izan zituzten euren partidetan baina A taldeak Mayumi irabazi zuen: B ekipoak, aldiz, ez zuten zorterik izan Toloboleiren aurka. Kadete mailakoak bosgarren setera iritsi ziren La Asuncion Izukaitz Aren aurka; donostiarrak izan ziren garaile.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Lagun Onak CD - Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Garmendipe, Azpeitian.

GORENGOEN MAILA

Lengokoak SD - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Cesar Benito, Donostian.

ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA

Irauli Bosteko KK - Texas Lasartearra CF
Igandea. 19:30. Matigoxotegi, Donostian.

ERREGIONAL I. MAILA, KOPA

Ostadar SKT - Sporting de Herrera
Igandea. 16:55. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO JUBENILA

Ostadar SKT - Vasconia CD B
Larunbata. 18:40. Michelin kirol gunean.

JUBENILEN I. MAILA

Ostadar SKT B - Orereta Kafea FC
Larunbata. 16:45. Michelin kirol gunean.
Texas Lasartearra CF - Danena KE C
Igandea. 15:00. Michelin kirol gunean.
Segura Goierri KE B - Ostadar SKT C
Igandea. 16:00. Alustiza, Seguran.

OHOREZKO KADETEA

Ostadar SKT - Añorga KKE
Igandea. 13:15. Michelin kirol gunean.

KAD. I. MAILA, GIPUZKOAKO KOPA

Ostadar SKT (neskak) - Goierri Gori FK C
Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunean.
Texas Lasartearra CF - Ostadar SKT B
Igandea. 11:30. Michelin kirol gunean.

KAD. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA

Ostadar SKT C - Ast. Mundarro FKE B
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.

INFANTIL HANDI, KOPA

Lengokoak SD - Ostadar SKT

Asteartea. 18:00. Cesar Benito, Donostian.

INFANTIL TX., TXAPELDUNEN FASEA

Hernani CD - Ostadar SKT
Igandea. 10:00. Zubipe, Hernanin.

INF. I. MAILA, TXAPELDUNEN FASEA

Texas Lasartearra CF - Santo Tomas Lizasoa
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

INF. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA

Ostadar SKT - Touring CD B
Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

I. MAILA

Gaintxu AFT - Eguzki Arkupe Rehab.

Larunbata. 16:00. Bekoerrota kirol., Lezon.

III. MAILA

Anoeta FT - Eguzki ISU Leihoak
Ostirala. 21:30. Abraham Olano kirol.

GAZTEEN MAILA

Eguzki Bod. Ayesa - AF Antxo Pesc. Ferreres

Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETE MAILA

Eguzki G. Goxua - Lauburu KE Ibarra A
Larunbata. 14:20. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL MAILA

Eguzki B. La Escalerilla - Aloña Mendi KEA
Larunbata. 12:55. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOIA

I. MAILA

Goierri - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Aldiri kirol., Urretxun.

JUNIOR ERRENDIMENDUA

Ostadar SKT - Car. San Marcial Hond.

Ostirala. 20:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDIMENDUA

ZAST GAP - Ostadar SKT
Larunbata. 11:00. Aritzabalde kirol., Zarautzen.

KADETE PARTAIDETZA

GRS Ointxe! - Ostadar SKT
Igandea. 10:00. Musakola kirol., Arrasate.

INFANTIL ERRENDIMENDU URREA

ZAST Lynx - Ostadar SKT
Larunbata. 09:15. Aritzabalde kirol., Zarautzen.

INFANTIL PARTAIDETZA

Ostadar Urdina - CDB Erroibide Irun
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar SKT - Bera Bera Anoeta

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Arri BKL Orkli - Ostadar Beltza

Igandea. 10:45. Antzizar kirol., Beasainen.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA

Ostadar SKT - Bera Bera

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

EUSKAL LIGA, II. MAILA

CD Univ. de Navarra - Ostadar SKT
Igandea. 11:30. Univ. de Navarra kirol., Iruñea, Nafarroan.

SENIOR MAILA

Hernani KE - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Hernaniko kirol.

JUBENIL MAILA

Ostadar SKT - Aidean
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

KADETE MAILA

Udarregi - Ostadar SKT

Larunbata. 12:00. Oiarko kirol., Usurbilen.

INFANTIL MAILA

Ostadar SKT B - Oiarso Gorria
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Aldapeta Maria berdeak - Ostadar SKT A
Larunbata. 09:00. Aldapeta Maria ik., Donostian.

IGERIKETA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Gipuzkoako txapelketa lehiatuko dute.
Larunbata eta igandea. Agorrosin kirol., Berqaran.

PILOTA

GOMAZKO PALETA, 2. SENIORRA
Intza KE (Mendizabal) - Errepala

Ostirala. 19:00 (4. partida). Loidibarren pil.

UDABERRI TX., 2. SENIORRA

Intza KE - EPLE
Larunbata. 12:00 (1. partida). Michelin kirol guneko pil.

ESKUZ BINAKA, 2. INFANTILA

Intza KE 2 - Intxurre 1
Ostirala. 19:00 (2. partida). Loidibarren pil.
Intza KE 1 - Alde Zaharra 2

Ostirala. 19:00 (3. partida). Loidibarren pil.

ESKUZ BINAKA, 3. INFANTILA

Intza KE - Alde Zaharra 2
Ostirala. 19:00 (1. partida). Loidibarren pil.

ESKUZ BINAKA, 2. ALEBINA

Segura 2 - Intza KE
Ostirala. 19:00 (1. partida). Baratzte pil., Seguran.

ERRUGBIA

18 URTEZ AZPIKOA

G. Okelan Zarautz Beltzak RT - Getxo RT
Larunbata. 13:00. Michelin kirol gunean.

16 URTEZ AZPIKOA

Iruña Rugby / UNAV - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT
Igandea. 11:00. Univ. de Navarra, Iruñea, Nafarroan.

14 URTEZ AZPIKOA

Bera Bera RT B - Zarautz Beltzak RT
Larunbata. 10:00. Asti, Zarautzen.

XAKEA

II. MAILA

Taula A - Astigarraga B

Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.

III. MAILA

Taula B - Agustin de Leiza B
Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.

ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ostadar SKTko zein herriko atletik Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute.

Larunbata eta igandea. Antonio Ehortza bel., Donostian.

LASTERKETAK

TALAIJA MENDI KROSA

Herriko taldeetako ordezkariak VII. Herri Ametsa Talaija Mendi krosean izango dira lehiak.

Igandea. 10:00. Donostian.

IDIAZABALGO HERRI KROSA

Herriko lasterkariak 43. Idiazabalgo krosean parte hartuko dute.
Igandea. 12:00. Idiazabal.



Mikel Ibisate herritarra, baloia-ekin ihesi joan nahian. TXINTXARRI

Euskal Ligako taldeak, borrokatutako garaipena

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeak Ekin eraikuntzak Arratiko Zekorrek 31-29 gainditu du. Bizkaitarrak ederki lehiatu dira Michelin kirol gunean jokaturako neurketan. Alex Saleta herritarrak Espainiako selekzioarekin egin du lan

Txintxarri

2024. urteko lehen errugbi partida jokatu zen Michelin kirol gunean hilaren 21ean; Euskal Ligako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak-Ekin eraikuntzak Arratiko Zekorrek neurketa borrokatuak ikusleak gozarazi zituen. Gernika RTko bigarren taldea lehiarako gogoekin etorri zen Lasarte-Oriara eta etxeko taldeak zail izan zuen garaipena eskuratzeko.

Lehen minututik kinka larrian jarri zuten bizkaitarren erasoek Beltzen defentsa. Aurrelari esperientziadunek eta hiru laurdeneko bizkorrek entsegu marraren bila saiakera ugari egin zituzten.

Zorionez etxekoek ongi erantzun zieten aurkariari eta hamargarren minutuan, mele batetik ateratako baloia marraraino eramane Gabi Gavilan herritarrak. Julen Espinosak gauzatze egin eta 7-0 aurreratu zen etxeko taldea.

Gernikarrek ez zuten amore emango, ordea; erasoak areagotu eta presio handia egin zuten Beltzen defentsan. Ondorioz, epaileak aurkako falta eta zigor-entsegu adierazi zuten eta aurkariak neurketa berdintzea lortu zuen. Lau minutura gai-

nera, etxekoen akatsarengatik hutsune bat egin zen defentsan eta Zekorrek ederki baliatu zuten aukera markagailuan aurretik jartzeko.

Emaitzak ez zuten gainerako minutuetan aldaketarik izan. Bi taldeek aukerak sortu zituzten, baina atsedenaldira 7-14koa ere iritsi ziren.

Erantzun itzela

Neurketako bigarren zatia hasi eta gernikarrek hirugarrenez marra igaro zuten.

Etxekoak ez ziren erantzun gabe geratuko eta lan handia eginez, Mikel Ibisate herritarrak aurkariaren defentsan hutsune bat aurkitu eta entsegu egin zuten. Espinosak ez zuten huts egin eta gauzatzea ere lortu zuen.

Lau minutuetara Arkaitz Urdangarinek ere defentsa atzean utzi eta baloia entsegu eremura eramane zuten. Eta beste lau minutu behar izan zituen Gabi Gavilanez neurketako bere bigarren entsegu egiteko. Hau ere Espinosak ongi gauzaturakoa.

26-19ko markagailuarekin aurkariak ez zuten etsi eta Beltzek partida bereganatzeko saiakerak egin zituen. Oier Preciadorren lehen entseguari esker, lortu zuen aldea irekitzea.

Baina Arratiarrek kirioak dantzan jarri zizkieten etxekoei 71. eta 78. minutuetan eskuratutako entseguarekin. Gauzatzerik ez zuten lortu, ordea, eta 31-29ko markagailu estuarekin amaitu zen lehia.

Postu borroka

Euskal Ligako Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldea bosgarren postuan da garaipenari esker.

Laugarren sailkatua den Txingudi puntu bakarrera du eta hamabigarren jardunaldian neurturen indarrak bi taldeek. Inauterietako larunbatean, otsailaren 10ean da hitzordua Plaiaundiko zelaian, eta, ordura arte, norgehiagoka gaintzeko gogoarekin lan egingo dute Beltzek.

Beste mailak eta selekzioa

18 urtez azpiko taldeak ere garaipena erdietsi zuten; Uribealde Arrieta 12-17 gaintu zuten. 16 urtez azpikoak, bestalde, Getxo 2009ren aurka galdu zuten, 10-58.

Eta Espainiako Selektzioa Europako Txapelketa prestatzen hasi da. Lehen deialdian Ordi-ziako jokalaria Alex Saleta herritarra sartu da; hilaren 21etik 23ra Guadalajaran izan da lanean taldearekin.



Alebin mailako partidako irudia. TXINTXARRI

Intzako pilotariak sei neurketatik bi irabazi dituzte

Nagusien 2. mailako zein infantil 3. mailako bikoek garaipena erdietsi dute; alebinek porrot batekin hasi dute txapelketa

Txintxarri

Intza Pilota Elkarteko kideek jardunaldi berri bati egin zioten aurre. Guztiek euren onena eman zuten eta zorte ezberdina izan zuten herriko elkarteko kirolariak.

Hilaren 19an, 2. urteko alebin mailako gaztetxoak batu ziren lehiara eta ederki borrokatzen hasi zuten Errendimenduko bikotekako txapelketa. EPLE izan zuten aurrez aurre Intzako Garcia eta Lier Garmendia kideek osatutako bikoteak. Tanto polita eta borrokatuak ikusi zituzten Loidibarren pilotalekuan bildu ziren ikusleak. Azken tantoetan Errenteriako bikotea hobeto moldatu zen eta garaipena erdietsi zuen, 14-16.

Udaberri txapelketan eta 3. mailako infantil neurketetan garaipena eskuratu zuten Intzako kideek.

Nagusien 2. mailan Aloña Mendi 1 izan zen Jon Pello Artetxe eta Peru Urdanpilleta herritarren aurkari. Lasarteoriatarrak neurketa hasieratik nagusi izan ziren. Sendo jokatu

eta tantoak egiteko aukera gutxi utzi zizkieten aurkariari; 6-22 gailendu ziren.

Unai Lizarragak eta Arkaitz Lasak ere aurkariak gaintu zituzten 3. infantil mailako hitzorduan. Markagailuan aurre hartu eta ederki mantendu zuten aldea Intzako gazteek; 12-18ko markagailua izan zen amaieran.

2. Infantil mailan, aldiz, bi neurketatik biak galdu zituzten Intzako ordezkariak. Intza 2k (Iparragirre-Lopez) ezin izan zuen Kukuren aurka ezer egin, baina emaitzak islatzen duena baino tanto gehiago egiteko aukera izan zuten, 18-4.

Intza 1 (Jauregi-Maiz) bikoteak Ziotza 2ri gauzak zail jartzen saiatu ziren arren, zizurkildarrek eraman zuten neurketa 18-12.

Gomazko palako modalitatean, Jagoba Mendizabalek Tolosara egin zuten bidaia. Beotibar taldeko Goitiarekin neurtu zituen indarrak lasarteoriatarrak. Hasieratik nagusi izan zen tolosarra eta 25-7 amaitu zen norgehiagoka.

Taula A taldeak, puntu banaketa eta lidergoan II. mailako Ligan

Taula Xake Klubeko kideek Ligako bigarren jardunaldiari egin zioten aurre etxetik kanpo. Iru- n 2. mailako taldeak bina berdindu zuten Salto Bidasoa Dren aurka. Miguel Maria Baroja eta Jose Ignacio Echeverriak eskuratu zituzten lasarteoriatarren bi garaipenak. Puntu horiei esker, sailkapeneko lehen postuan da Taula A ekipoa.

3. mailako taldeak, aldiz, Andoingo Agustin de Leiza C ekipoa izan zuten aurrez aurre eta neurketa bakarrenean lortu ahal izan zituzten puntuak. Victor Alvarok berdinketa lortu zuen; Ander Etxauri, Mikel Manterola eta Diego Alonso kideen partidetan aurkariak gailendu ziren.

Erlantz Sanchez herritarrak ere jardunaldia jokatu zuten Gros K taldearekin. Jokalari gazteak ez zuten partidarik jokatu, ordea; ez zen bere aurkaria aurkeztu.

Buruntzaldea IKTko igerilariak, ederki lehian

Buruntzaldea IKTko igerilariak Palma Mallorcakoan (Balear Uharteak) eta Ordizian lehian izan dira. Iñaki Garciak Erkidegoen arteko Espainiako txapelketan parte hartu du Euskadiko selekzioarekin eta bakarkako probetan bere marka pertsonalak ondu ditu

Txintzarri

Buruntzaldea IKTko kideak bi hitzordutan lehiatu dira hilaren 19-21eko asteburuan. Iñaki Garcia taldekidea infantil eta junior mailako Erkidegoen arteko Espainiako txapelketan parte hartu zuen Euskadiko selekzioarekin eta taldeko txikiek KZL ligako bigarren jardunaldiari egin diote aurre.

Palma Mallorcara (Balear Uharteak) egin zuen bidaia Iñaki Garciak Euskadiko selekzioarekin. Infantil mailako sei probatan –hiru bakarka eta hiru errelebotan– egin zuen igeri herriko taldeko gazteak. 50 metroko igerilekura ohitua ez dagoen arren, erronkari ederki egin zion aurre Garciak eta emaitza onak lortu zituen bere marka pertsonalak onduz eta Espainiako txapelketarako gutxieneko berria eskuratu.

Hilaren 20an, 200 m. bizkar proban bere marka berritzen eman zion hasiera lehiari, 02.23,91.

Arratsalde horretan bertan, estilo bereko 100 metroko saioan ere marka pertsonal berria egin zuen, 01.04,84. Horrek gainera, martxoaren erdialdean Terrassan



Iñaki Garcia, lehiatzen. BURUNTZALDEA IKT

ospatuko den Infantil Mailako Neguko Espainiako Txapelketarako txartela eman zion igerilari gazteari.

Nahiz eta nekea somatu, hurrengo egunean 200 m. lau estilo lehian marka ederra egin zuen bere erregistroa berritzeko, 02.29,55.

Horiez gain, Euskadiko selekzioziko 4x200 m. libre, 4x100 m. libre eta lau estiloetako 4x100 metroko erreleboetako kide izan zen Buruntzaldea IKTko igerila-

ria eta 11., 8. eta 7. postuak eskuratu zituzten, hurrenez hurren.

Bestalde, hilaren 27an eta 28an, infantil, junior eta absolutu mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatuko du Garciak. Ez da bakarrik izango, Buruntzaldea IKTko talde politak parte hartuko du Bergarako Agorrosin kiroldegiko igerilekuan.

Benjaminak, bikain

Buruntzaldea IKTko hamalau benjamin Ordiziako Majori kiroldegian izan ziren lehian.

2015ean eta 2014an jaiotako igerilariak 50 m. bizkar proba egin zuten igerian; estilo libreko 6x25 m. errelebo mistoa ere izan zuten.

2013an jaiotako gaztetxoek, aldiz, bi proba egin behar izan zituzten bakarka: 50 m. bular eta bizkar estiloko 100 metrokoa. Eta erreleboari dagokionez, 4x50 m. libreko saioa lehiatu zuten.

Taldeko prestatzaileek adierazi dutenez, "urduri egon ziren arren, guztiek jarrera bikaina erakutsi zuten jardunaldi osoan zehar, euren erronkei aurre eginez eta ikasitakoa aplikatuz".

Lasarte-Oriako atletak, Gipuzkoako txapelketaren zain

Eider Redondok luzera jauzi proban 16 urtez azpiko Espainiako txapelketarako gutxieneko marka egin du

Txintzarri

Ostadar SKTko zein herriko atletak Gipuzkoako txapelketari aurre egingo diote hilaren 27an eta 28an, Donostiako Antonio Elortza belodromoan. Herriko kirol elkarteko 11 kirolari proba ezberdinetan lehiatuko da lehen postuetan egon edo beste txapelketa batzuetarako markak eskuratzeko. Atletico San Sebastian taldeko Nerea Eugi, Super Amara BATeko kide

Unax Goenaga eta Aloña Mendiko Jon Presa herritarrek ere dominengatik lehiatuko dute.

Txapelketa horren aurretik herriko atletak hainbat proba libre izan dituzte azken hilabeteetan markak eskuratu ahal izateko. Azkena, hilaren 20an izan zen Eibarreko Unbe pistan. Ostadarreko lau kide izan ziren parte hartzen eta hirurek luzera jauziko euren markak ondu zituzten.

Eider Redondo gazteak 5,43 metroko jauzia egin zuen; June Garciak 5,05 metrokoa eta Iugatz Almagrok 4,87 metrokoa.

Redondoren markak gainera 16 urtez azpiko Espainiako txapelketan parte hartzeko aukera emango dio. Martxoan Valentzian jokatu da hitzordua.

Lasterketak

Lasarte-Oria Trail taldeko kideak, aldiz, mendian barrena ibili ziren batzuk lehian eta besteak ibilaldi antolatuetan.

Taldeko Xabier Aizpuruak Garin Mendi Lasterketan parte hartu zuen eta 01.08.54 behar izan zituen helmugara iristeko.

Arantzako Mendi itzulian ere izan zen LOTMEko ordezkariak.



Linazasoro eta Escribano, Gorka Aristegi entrenatzailearekin. LOKE JUDO

LOKEko judoek, bi domina Tortosako Espainiako Kopan

Lehiaketez gain, entrenamendu eta ikastaroak izan dituzte LOKE Judoko kideek azken hilabetean

Txintzarri

Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko (LOKE) Judo saileko kideek ez dute atsedetik Gabonetako oprobaldien ostean.

Infantil mailako Espainiako kopan izan dira Maria Escribano eta Anne Linazasoro. Tortosan lehiatu ziren erkidego ezberdinetako aurkarien aurka eta launa borroka egin ostean, biek domina jantzi zuten. Escribano 57 kilo azpiko promozio mailako bigarren sailkatu zen; Linazasorok, aldiz, 63 kilo baino gehiagoko mailan hirugarren postua eskuratu zuen.

Hilaren 21ean, berriz, Euskadiko federazioak antolatutako entrenamenduan egin dute lan infantil, kadete, junior eta senior kategoriako LOKEko judoek.

Baina Gabonetan ere ikasten eta lanean izan dira Gorka Aristegik zuzentzen dituen kirolariak.

Abenduaren 29an, urteari amaiera emateko Kangeiko entrenamendua egin zuten. Goizeko 06:30ean korrika egitera atera eta 07:00etatik 09:00etara entrenamendu gogorra egin zuten. Ostean, gosaltzera joan ziren guztiak.

Olinpikoez ikasten

Egun bat geroago, Euskadiko federazioak Gasteizen antolatutako lehen topaketa olinpikoan parte hartu zuten. LOKEko kideek Joko Olinpikoetan lehiatu diren Sugo Uriarte, Laura Gomez, Oiana Blanco, Kenji Uematsu eta Kiyoshi Uemats judoken azalpenak adi jarraitu zituzten.



IBON ERRAZU/GUKA

Telleria, Errota Harriko garaile

Errota Harriaren txapelketa lehiatu zen hilaren 21ean, Zestoako Iraeta auzoan eta Beñat Telleria herritarrek txapela jantzi zuen. Gari Garmendia *Garmendia II*, Xabat Olaizola, Beñat Telleria eta Inhar Urruzuno harri jasotzaileek 107,2 kiloko bola altza behar izan zuten hiru minutuko txandan. Telleriak 28 aldiz jaso zuen harria, Garmendia II.ak 27 altxaldi egin zituen eta Olaizolak eta Urruzunok 24na egin zituzten.

ZORION AGURRAK



Rober
"Acho!", haurtzaroko lehen 50 urteak dira zailenak. Larunbatetik aurrera... hurrengoei egurra!!! Muxu eta besarkada bat familia eta lagunentzako partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

· txintxarri.eus/zorionagurra.
· Erabiltzailearekin sartu/
Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 26	LASA
LARUNBATA, 27	URBISTONDO
IGANDEA, 28	URBISTONDO
ASTELEHENA, 29	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 30	DE ORUE
ASTEAZKENA, 31	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 1	LASA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 26



Larunbata, 27



Igandea, 28



Astelehena, 29



Asteartea, 30



Asteazkena, 31



Osteguna, 1



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

OHARRAK

La Esperanza auzo elkarteko urteko batzarra

La Esperanza auzo elkarteak bertako kideei dei egiten die, hilaren 28an igandearekin egingo den urteko batzar orokorrera gerturatu daitezten. Ohiko bilera, goizeko 10:00etarako aurre ikusi dute, eta bigarren ez-ohikoa berriz goizeko 10:30erako. Gai ordena honakoa izango da; aurreko aktaren irakurketa eta onarpena, kudeaketa balantzea, lokalen kudeaketa, batzorde kide berrien izendapena, eta amaitzeko, erreguak edo galderak egiteko tarte bat ere izango dute auzokideek.

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

ESKUTITZA

Udalari eskerrak

M.B.

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiot Lasarte Oriako Udalari antolatutako pin gabonetako haur parkearengatik.

Herritik atera gabe aukera paregabea da gabonetako oportetean etxeko txikiak jolastu dezaten inguru seguru eta lasaian.

Baita ere aipatzekoa da pin bertan lan egiten duten gazteen jarrera gogotsua. Beti laguntzeko prest edota edozein zalantza argitzeko.

Espero dugu hurrengo urteetan horrelako ekintzak mantentzea.

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

SUDOKUA

3		7					5	
	5				9		6	
9	1				2	8	7	
4	3	8		1				
		1	6	7			2	
				4	8	3		5
			5		7	6		2
		9		3			4	
6				2				1

Sudoku10.net

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?
Jar zaituz gurekin harremanetan!**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKAINZA

Lasarte-Oria interna modura lan egiteko emakumea behar dut. Baldintza onak eskaintzen dira. Informeak beharrezkoak. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ESKARIA

Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetuei

laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Eribeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Eribeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketara...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubie-

tan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. 602 08 25 83.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira heritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo
Gonzalez, Maddi Zaldua eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux
Artetxe, Maitane Rebe, Julen
Basterra, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Nikola Iraola, Xuban
Urdalaita, Egoitz Epelde,
Endika Merchan, Gorka
Morales, Sergio Hernandez,
Ander Hazas eta Iñigo
Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 26

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren proiektzioa egingo du, *El viejo roble* filma emanda. Sarrerek 6 euro balio dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Manifestazioa

Lasarte-Oriako Sarek urtarrieko Azken Ostirala aurrera eramango du, euskal presoaren eskubideak aldarrikatzera kalera aterata.

Elizate plaza, 20:00etan.

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Festa

Sasoeta-Zumaburu eta Garaikoetxea-Landaberri ikastetxeek 2024-2025 ikasturterako matrikulaizoa sustatzeko festa bat aurrera eramango dute. Hau izango da egitaraua:

09:30ean, haurrek egingo dituzten marrazki eta idatziko ditzuten esaldiak sare handi batean eskegiko dituzte. Eurentzako herriko ikastetxeetan matrikulatuak egoteak eta ikastetxeetara joatean zer adierazten duen azaleratuko dute.

11:30ean, Zorionak Marimotots emanaldia ikusteko aukera izango dute bertaraten direnek, Porrotx eta Marimotots pailazoaren eskutik. Horren ostean, ikastetxe ezberdinetako familiek parte hartuko dute; seme-alabak herriko ikastetxeetan matrikulatzearen esperientziak kontatuko dituzte. Hori amaituta, plazan bildutakoek, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Agur bat lagun maite* dantzatuko dute, denek elkarrekin.

12:45ean, ikastetxeetako zuzendaritzek hartuko dute hitza; lasarte-Oriako familiak animatuko dituzten euren haurrak herriko ikastetxeetan matrikulatzera. **Eguraldi ona egiten badu, Okendo plazan; txarra egiten badu, Oriarte Landaberri institutuan; eta oso txarra egiten badu, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 09:30etik aurrera.**



LASARTE-ORIA Antzerkia

Buhameak taldeak *Erik eta Win* antzezlanaren emanaldia egingo du. Unai Muñio eta Ander Lizarralde bertsolariak eta Imanol Kamio eta Aitor Atxega musikariak ariko dira taula gainean.

Bihar, hilak 27, larunbatarekin, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Janari bilketa

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak herrialde horretan bizi diren errefuxiatuentzako janari bilketa solidarioa egingo dute. Pasta, arroza, azukrea, lekaleak, kontserbak eta konpresak utz ditzakete herritarrek.

BM supermerkatua (Kalbario bidea), 10:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Literatura

Bookstart Euskadi egitasmoaren barruko Liburu Baby Kluba irakurketa taldearen laugarren saioa egingo dute. 0 eta 2 urte arteko haurrei eta euren familiei zuzendutako egitasmoa da, doakoa. **Udal Liburutegia, 11:00etan.**

LASARTE-ORIA Antzerkia

Buhameak taldeak *Erik eta Win* antzezlanaren emanaldia egingo du. Sarrerek 6 euro balio dute. **Manuel Lekuona Kultur Etxea, 20:00etan.**

IGANDEA 28

LASARTE-ORIA Ekimena

Auzoz auzo egitasmoa marbxan jarriko du berriro Lasarte-Oriako PSE-EEK, herritarren kexa eta iradokizunak jasotzeko. Karpa bat jarriko dute eta alderdi sozialistaren udal taldeko zinegotziak izango dira

han, bertaraten diren lasarteoriarrekin hitz egiteko. **Atsokabar auzoa, 11:30-13:30.**

LASARTE-ORIA Dantza

Plaza Dantza egitasmoan parte hartzen ari diren herritarrek urtarrieko muxiko saioa aurrera eramango dute. **Okendo plaza, 12:00etan.**

LASARTE-ORIA Zinema

Kina y Yuk filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute. **Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.**

LASARTE-ORIA Zinema

Anatomía de una caída filma proiektatuko dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute. **Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.**

ASTEAZKENA 31

LASARTE-ORIA Ikastarua

Otsailaren 3ko euskal inauterietara begira, txantxo jantzien tailerra egingo dute Ttakun Kultur Elkarteak eta udalak. Parte hartu nahi dutenek euskara elkarteak Geltoki kaleko 4. zenbakian duen bulegora joan, 695 78 53 89 telefonora deitu edo

ZINEMA



LABURPENA

'Anatomía de una caída'

Zuzendaria: Justine Triet. **Gidoia:** Arthur Harari, Justine Triet. **Argazkia:** Simon Beaufils. **Ekoizleak:** Les Films Pelleas, Les Films de Pierre. **Herrialdea:** Frantzia (2023). **Iraupena:** 150 minutu. **Generoa:** Thrillerra, drama. **Aktoreak:** Sandra Huller, Samuel Theis, Milo Machado Graner, Swann Arlaud, Jehnny Beth.

Suizidioa ala erailketa?

Suizidioa ala erailketa izan ote da? Galdera horren erantzuna deskubrituko dute ikus-entzuleek *Anatomía de una caída* filmean. Samuel senarra eta Daniel seme itsuarekin bizi da Sandra, idazle alemaniar bat, Frantziako Alpeetan. Samuel hil egingo da bat-batean, erorita, eta ikertzaileek ezingo dute zehaztu bere buruaz beste egin ala norbaitek eragin duen bere heriotza. Emaztea atxilotu eta epaituko dute senarra erailteza egotzita,

eta prozesuak erakutsiko du zer-nolakoa zen haien arteko harremana eta idazlearen izateko moduaren aspektu zalantzarriak zeintzuk diren.

Justin Triet zuzendari frantziarraren luzemetraiak kritika oso onak jaso ditu eta zinema jaialdi garrantzitsuenetako batzuetan izendapenak lortu, hala nola, iazko Oscarretarako: film, aktore protagonista (Sandra Huller), zuzendari, gidoi eta muntaia onenarenak, hain zuzen.

WhatsApp mezu bat bidali edota kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi behar dute. Saiora etxeko oihal zaharrak eta lastozko txanoak eraman beharko dituzte. **Anbulategiko bigarren solairua, 18:00etan.**

programari buruzko xehetasun gehiago. **Erdigunean barrena, arratsalde osoan zehar.**

IGANDEA 4

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Santa Ageda bezpera ospatuko du Zabaleta Auzolan elkarteak, egitarau honen bidez: **11:00etan**, santa eskean auzoan barrena. **14:00etan**, auzo txotx!, Imanol Jimenez auzokideari omenaldia eginda. Otegi sagardotegira Oaintxe in deu! txarangarekin batera joango dira, kalejiran. **Zabaleta auzoa, 11:00etatik aurrera.**

LARUNBATA 3

LASARTE-ORIA Jaia

Euskal inauterien bidez lurra esnatzen ari dela ospatuko dituzte lasarteoriarrek, ohi bezala, Ttakun Kultur Elkarteak udalarekin elkarlanean prestatutako egitarau oparo baten bitartez. Datozen egunetan emango dituzte antolatzaileek prestatu duten

SASOETA ZUMABURU IKASTETXEA

MATRIKULAZIO EPEA
Otsailaren 7tik 23ra

- 2 urtekoentzat egokitzapena: bi astekoa eta siesta zerbitzua.
- Euskara ahora proiektua: irratia, aldizkari digitala eta podcastak.
- Piktoidazketa proiektua: 3 hizkuntza batera integratuak.
- Innovamat proiektua: Matematika manipulatioa.
- Ingelesa: 4 urtetik aurrera.
- Sare hezkuntza: kompetentzia digitala lantzen.
- Liburutegi eta mediateka zerbitzuak.
- Goiz txoko zerbitzua.
- Jangela zerbitzua.
- Garraio zerbitzua.
- Eskola orduz kanpoko jarduerak.

Eskolako
telefonoa

943361226

• ATE IREKIAK •

Otsailak 3 (11:00-13:00) ZUMABURU

BILERA INFORMATIBOA

Otsailak 7 (17:00) ZUMABURU

+ info

sasoeta-zumaburu.eus

